

UN
PASO
MÁS.

Erabaki

BAIETZ!

EH BILDUREN KONPROMISO POLITIKOA

**Demokrazia +
Askatasun +
Eskubide +
Justizia +
Burujabetza +**

ehbildu

HERRITARREKIN KONPROMISOA EUSKAL HERRIAREKIN KONPROMISOA

Herri askea, bidezkoa eta demokratikoa eraiki nahi dugu, eskubide eta askatasun guztiak herritar guztiontzat bermatuko dituen, herri sektoreen interesak eta ongizatea babestuko dituen.

Horregatik, EH Bilduk konpromiso hauek hartzen ditu:

- **Autodeterminazio eskubidea defendatzea** konponbide demokratiko gisa, euskal jendartearen gehiengo zabalak babesten duen erreferendum baten bitartez egikaritua.
- **Gure autogobernua defendatzea** Estatu Espainolaren erasoan aurrean. Falta diren eskumen guztien transferentzia exijituko dugu, negoziatorik eta trukaketarik gabe, euskal herritarron eskubideak ez direlako negoziatzen, bete egiten dira.
- **Espainiako eskuina geratzea**, inboluzio demokratikoari, ber-zentralizazioari eta faxismoari aurre eginez, horretarako gure eragina eta gure botoak erabiliz. Era berean, eskuinarekin ezer ez adosteko eta hauen parte hartzea edota laguntza izango duen gobernurik ez ahalbideratzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Euskal presoek eskubideak defendatzea**, sakabanaketarekin eta salbuespeneko neurri guztiekin amaituz eta guztiak etxean egoteko lan eginez.

- **78ko Errejimenari aurre egitea**, askatasunen defentsan, errepresio politiko eta soziala eta askatasunen murrizketari aurre eginez. Indar polizialen inpunitatearekin, epaiketa politikoekin eta epaileen eta epaitegien mendekuarekin amaitzeko. Ustelkeria sistematikoa, elite ekonomikoen eta IBEX35-aren interesak zein beren Erregea eta Monarkia konfrontatuz.
- **Herri sektoreen eskubideak babestu eta defendatzea**, herritarron bizitzak hobetzeko eta duintzeko ekimena hartuz. 1.080 euroko gutxieneko pentsioak exijitzeko eta legez KPIra egokitze konpromisoa hartzen dugu; prekarietatearekin amaitzea, 1.200 euroko gutxieneko soldata eta lan harremanetarako euskal esparrua defendatuz.
- **Egiturazko indarkeria matxistaren kontra borrokatzea**, Espainiako Justiziak erasotzaileei eskaintzen dien babesari aurre eginez, eta lan eremuan, arlo sozialean zein ekonomikoan egiazko berdintasuna sustatzeko neurriak bultzatuz.
- **Larrialdi klimatikoari aurre egitea**, planetaren suntsiketa eragiten ari diren enpresa handien inpunitatearekin amaituko duen neurri ausartak abiatuz. Gainera, planetaren txikizioa eteten lagunduko duten eredu sozial eta kontsumo ereduak sustatuko dituzten proposamenak babestuko ditugu.
- **PSOEk eta PPK bultzatutako lege antisozialak bertan behera uztea**: lan erreformak, pentsioen erreformak, Mozal Legea, LOMCE, 135 eta 155 artikulua, Egonkortasun Legea, Estranjeria Legea.
- **Herri burujabe bat eraikitzea**, herritar orok bere eskubideak babestuak izango dituen etorkizun libre, demokratikoa eta bidezkoa eraikitze berme gisa.



UN
PASO
MÁS.

Erabaki

BAIETZ!

EH BILDUREN KONPROMISO SOZIALA

**Enplegu +
Pentsio +
Feminismo +
Ekologismo +
Ongizate +**

ehbildu

AGENDA SOZIALA KONPROMISO SOZIALA EUSKAL HERRITARREKIN

Jendarte justu eta duina eraiki nahi dugu, pertsonak zaindu eta bizitza duinak eraikitzeko baldintzak eskainiko dituen. Herritarren beharrei erantzungo dien politiken aldeko hautua egiten dugu, gure herriko gehiengo sozial langileari ongizate soziala eta eskubideak bermatuko dizkien ereduak lortze aldera. Eta euskal herritarren lehentasunak enplegua, pentsioak, berdintasuna, hezkuntza, ekologismoa edo etxebizitza duina izatea direla argi izanik egingo dugu. Hori da benetako Euskal Agenda, soziala, euskal herritarren bizi-kalitateari eragiten dioten kezkak eta gaiak barnebiltzen dituen. Gure herriari eta bertako herritarrei bakarrik eman behar baitiegu kontu, ez enpresa handien interesei.

Horregatik, EH Bilduk Agenda Soziala eramango du Madrilera. Erreminta berriak lortzeko lanari eutsiko diogu, eskumen berriak eskuratzeko, gure herritarren eskubideak zabaltzen dituzten eta ongizatea hobetzen duten politikak martxan jartzeko:

Enplegua

Prekarietatearekin bukatzeko enplegu duina sustatuko dugu. Horretarako, 1.200€-ko gutxieneko soldata eta kopuru hori hemen finkatu eta eguneratzeko eskumena exijituko dugu; EAEn eta Nafarroan Lan

Harremanetarako Esparru propioa lortzeko egingo dugu lan, baita PP eta PSOEren lan erreformak indargabetzeko ere. Horrez gain, elite ekonomikoen interesak langileen eskubideen eta ongizatearen gainetik jartzen dituzten edozein neurri blokeatuko ditugu.

Pentsioak

Euskal pentsionisten aldarriak Madrilera eramango ditugu. 1.080€-ko gutxieneko pentsioa, legez KPIa-ren arabera eguneraketa eta iraunkortasun faktorea behin betiko indargabetzea eskatzen hasita.

PP eta PSOEek martxan jarritako pentsioen erreformak ere indargabetuko ditugu. Pentsio duinak bermatze aldera, EAEn eta Nafarroan pentsio sistema publikoaren alde egingo duen eredia sustatuko dugu. Horretarako lehen urratsa Gizarte Segurantzaren Erregimen Ekonomikoaren eskumena lortzea izango da, pentsio horiek kudeatu ahal izateko.

Feminismoa

Emakumeen eskubideak eta askatasunak defendatuko ditugu, bizi dugun egiturazko indarkeriaren kontrako borrokari eutsi eta berdintasunaren alde aritzeko. Balio eraldatzaile feministetan oinarrituta egingo dugu lan, gure gorputzari, gure sexualitateari eta gure lurraldeari dagozkion erabakitze eskubideak onartuak izan daitezen.

Abortu Lege berri bat proposatuko dugu: lege horrek emakumeek euren gorputzei buruz erabakiak hartzeko duten eskubidea bermatu dezan, eperik gabe eta sistema publiko, doako eta unibertsal baten bidez.

Kode Penala aldatzea proposatuko dugu, edozein eraso matxistaren aurreko inpunitatearekin amaitzeko. Indarkeria matxistari dagozkion gaiei lotutako epaitegi bereziak martxan jartzea proposatuko dugu, formazio espezifikoarekin eta horretarako beharrezkoa izango den aurrekontuarekin. Edozein motako eraso matxistak babestu eta justifikatzen dituzten epaileen errekusazioa sustatuko dugu, epaileek eta justiziari indarkeria matxistarekiko duten konibentziarekin amaitzeko.

Larrialdi klimatikoa

Ezinbestean garatu behar den trantsizio ekologikoa eta energetikoari, ausardiaz eta irmoki eutsiko dioten neurriak proposatu eta babestuko ditugu. Planetaren suntsiketari aurre eginez egingo dugu hau, fokua klima aldaketaren erantzule nagusiak diren enpresengan jarritz batetik, eta ohitura sozial berriak sustatuz bestetik, bizitza eta kontsumo eredu jasangarriagoetara igarotzeko.

Planetaren ustiapena eragiten duten negozio ereduarekin amaitzeko, enpresa handiek eta hauen arduraduek jardunbide horiek bertan behera utz araziko dituzten neurriak proposatu eta babestuko ditugu. Eta hau bi norabidetan egingo dugu: inolako erantzukizunik gabe kutsatzen jarrai ez dezaten, ezinbestean bete beharreko neurrietatik hasi eta neurri fiskaletara arte. Era berean, enplegu berdea eta berrikuntza zein teknologia berrietan dauden aukerak sortzea bultzatuko dugu.

Etxebizitza

Espekulazioarekin eta negozio hutsarekin bukatuko duen etxebizitza politika sustatuko dugu, alokairuei muga jarritz eta etxegabetzeak geldituz. Etxebizitza duinerako sarbide soziala lehenetsi eta tokiko

erakundeei erremintak eskainiko dizkien etxebizitza politika izango da, etxebizitzari lotutako eremua kontrolatu eta erregulatu ahal izateko. Horretarako Etxegabetzeen Aurkako Legea sustatuko dugu, gehiegizko alokairuak erregulatu eta gazteei zuzendutako alokairu sozialerako laguntzak handituz. EAEko eta Nafarroako etxebizitza legeen errekurtsuak erretiratzea ere exijituko dugu, jasotzen dituzten neurri efektibo guztiak aplikatu ahal izan daitezen, etxebizitzaren eskubide subjektiboa barne.

Lege antisozialen indargabetzea

Azken urteetan Espainiako gobernuek PP zein PSOEren eskutik onarturiko lege antisozial guztiak indargabetuko ditugu, herritarren oinarritzko eskubideen aurka egiten baitute:

- Lan erreformak
- Pentsioen erreformak
- LOMCE
- Mozal Legea
- 135 Artikulua, zorraren ordainketaren lehenespena
- Aurrekontuen Egonkortasun Legea
- Atzerritartasun Legea

Eskumen sozialen transferentziak

Oraindik eskualdatu gabe dauden eskumenen transferentziak berehala gure esku jartzea exijituko dugu. Horien artean lehentasunezkoak izango dira eduki soziala eta ekonomikoa dutenak, ezinbesteko

erreminta baitira herritarren bizi baldintzak hobetzeko: Gizarte Segurantzaren Errejimen Ekonomikoaren transferentzia, pentsioen gainerako gai guztiak barne; enplegu-politika pasiboak; hezkuntzari lotutako esku-menak; eta gai fiskalei zein aurrekontuei dagozkion ahalmen guztiak.

Euskadi eta Nafarroako Legebiltzarrek onartutako lege guztien defentsan

Espainiako Gobernuak eta hauen delegatuak EAEn eta Nafarroako legebiltzarretan onartutako legeei jarritako errekurtsioak berehala erretiratzea exijituko dugu. Izan ere, nagusiki eduki sozialekoak baitira, eta Eusko Legebiltzarreko zein Nafarroako Parlamentuko gehiengoaren botoekin onartutakoak baitira. Gure legebiltzarrek duten burujabetzaren eta erabaki ahalmenaren kontrako edozein erasori aurre egingo diogu, bi legebiltzarrotan gehiengoz onartzen diren politika babestuz, eta Estatu espainiarrak hauen kontra burutu dezakeen eraso oro arbuiatuz.

Euskal Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa

Gure autogobernu eta ongizatearen oinarrietako bat diren tresna hauek defendatuko ditugu, herri burujabe baten proiektua eraikitzen lagunduko duten erreminta propioak eskuratzearekin batera. Era berdinean, Kontzertu eta Hitzarmenaren kalkulurako formula berria proposatuko dugu, berdinen artekoa, gardena eta justua, euskal herritarren interesei erantzungo diena. Honek, egungo egoera injustuarekin bukatzea du helburu, non Espainiako estatuak erabakitzen duen, aldebakartasunez, noiz, nola eta zenbatean eguneratzen diren tresna hauek, beti euskal herritarren kaltetan.